

# Azpeitiko batxilergoko gazteen herriko hizkuntzekiko lotura afektiboa eta hizkuntza horien erabilera: azpeitiera, euskara batua, gaztelania

**Naroa Odriozola Gonzalez**

*Hizkuntza irakaslea*

naroaodriozola@hotmail.com

Sarrera-data: 2014-10-31 / Onartze-data: 2014-11-28

**Laburpena.** Azken urteotan euskararen egoerak hizkuntzaren ezagutzari dagokionez hobera egin duen arren, erabilerak behera egin du. Erabileraren beherakada hori ez da soilik ikerketetan islatutako datuetan nabarmentzen. Oso euskaldunak diren herrietan ere, jendeak euskaraz jakin arren, eta batik bat gazteek, erdararako joera dutela kalean ikusi eta entzuten da. Azpeitia da 5.000 biztanletik gora dituen herririk euskaldunena, eta hain herri euskalduna den eremuan gazteek herriko hizkuntzekiko zer lotura afektibo duten aztertzea erabaki da. • *Hitz-gakoak:* hizkuntza gutxitua, Azpeitia, azpeitiera, euskara batua, hezkuntza ereduak, jarrera, lotura afektiboa.

**Abstract.** Despite the fact that the Basque language situation with respect to language knowledge has seen an improvement, use has declined. This decline in use is not only apparent in the data reflected in pieces of research. In very Basque-speaking towns, too, despite the fact that people speak Basque and so do young people in particular, the tendency to use Spanish is clear in the street and is heard. Azpeitia is the most Basque-speaking town among those with populations of more than 5,000, and a decision was made to study the affective bond with respect to the local languages that young people have in such a Basque-speaking town. • *Key words:* Lesser-used language, Azpeitia, Azpeitia Basque dialect, standard Basque, bilingual education models, attitude, affective bond.

## SARRERA

Ikerketa honetan Azpeitiko batxilergoko ikasleek herriko hizkuntzekiko zer lotura afektibo edota bizipen dituzten aztertu nahi izan da. Herriko hizkuntzak esaten denean, euskara eta gaztelaniari egiten zaio erreferentzia hemen, horiek baitira hizkuntza ofizialak eta herrian gehien hitz egiten direnak. Gainera, euskararen inguruko bizipen horien baitan, euskara batuaren eta azpeitieraren inguruan zer-nolako irudikapenak dituzten jaso da lan honetan.

Honako gai hau aukeratzearen zergatiak badira hainbat. Batetik, Azpeitiko testuingurua oso erakargarria da euskarak bertan duen bizitasunagatik. Bestetik, gazteek, gaztelania eta euskara nola bizi dituzten aztertzea garrantzitsua litzateke, gazteak izango baitira ondorengo helduak, eta hauek etorkizuneko hizkuntza horien transmititzaileak

## HIZKUNTZEKIKO LEGEAK EUSKAL HERRIAN

Euskal Herrian elkarrekin bizi dira hiru hizkuntza, hirurak ofizialak izanik leku desberdinetan: euskara, gaztelania eta frantsesa.

Frantzia Hizkuntza ofiziala frantsesa da bakarrik. Horregatik, euskara ez da ofiziala Ipar Euskal Herrian. Frantziar errepublikan frantsesa ez den beste hizkuntzak erabiltzea eta jakitea ez da bultzatzen ez baitute uste inolako garrantzirik dutenik. Ondorioz, Frantziako euskal hiztunek ez dute inolako eskubiderik estatuaren aldetik.

Euskara eta gaztelania biak ofizialak dira Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Erkidegoko eremu euskaldunean.

## EGOERA SOZIOLOGIKOA ETA GAZTEEN EUSKARAREN ERABILERA

2011ko datuetan oinarritutako V. Inkesta Soziolinguistikoak (Eusko Jaurlaritzak 2013) erakutsi du, Euskal Herriko 16 urtetik gorako biztanleriaren artean euskararen jakintzan aldaketak eman direla aurreko urteetako datuekin konparatuz. Lurraldean arabera, aldaketa horiek desberdinak izan dira. EAEn eta Nafarroan euskararen jabetzak gora egin du, Iparraldean, aldiz, behera.

Datu horiek erakusten dutenez, 16 urtetik aurrerako biztanleria horren %27a elebiduna da (1991n %22,3), %14,7 elebidun hartzailea da eta erdaldun elebakarrak %58,4a dira (%70a 1991n).

***Ikerketa honetan gazteen hizkuntzekiko lotura afektiboari buruz hitz egin ahal izateko, ezinbestekoa izan da lehendabizi jarrerak hizkuntzen baitan nola eragin dezaketen azaltzea, izan ere, biak elkarren eragile dira.***

Ikerketa soziolinguistiko hauek elebidunen bilakaera esanguratsu bat egon dela agertzen dute 1991tik 2011ra bitartean, eta euskaldun kopuruak gora egin duela.

Hala ere, Inkesta Soziolinguistikoak ezagutzera eman du gazteen kopuru handiena gaztelaniaz hobeto moldatzen dela euskaraz baino. Euskararen ezagutzak gora egin duen arren, erabilerak ez du hala egin.

## **HIZKUNTZEKIKO JARRERAK**

### **I**

Ikerketa honetan gazteen hizkuntzekiko lotura afektiboari buruz hitz egin ahal izateko, ezinbestekoa izan da lehendabizi jarrerak hizkuntzen baitan nola eragin dezaketen azaltzea, izan ere, biak elkarren eragile dira.

Gazteen euskararekiko jarreraren inguruan egin diren ikerketen artean, bat Nekane Larrañagaren (1995) *Euskalerriko gaztetxoek euskararekiko dituzten jarrerak eta beren eragina euskara ikasi eta erabiltzean* doktorego tesia da. Bertan Euskal Herriko gazteek euren hizkuntza aldaerekiko dituzten jarrerak bildu nahi izan ditu, ikusteko jarrera horiek nola eragiten duten euskara ikasterako orduan. Jarrerek euskararen ikaskuntzan eta erabileran badutela zuzeneko eragina baieztatu zuen. Beraz, gazteen euskararen ikaskuntza eta erabilera, eurek hizkuntza horrekiko duten jarreraren arabera izango da.

## **EUSKARA, HIZKUNTZA GUTXITUA**

### **I**

Badira hiztun bakarreko edo oso-oso gutxiko hizkuntzak. Hain hiztun gutxi dituen hizkuntzak, arrisku larrian aurkitzen dira eta UNESCO (Moseley 2010) hizkuntza gutxituen atlasean ageri dira. Euskara honako atlasaren barruan aurkitzen da *vulnerable*, ahul, kategorian.

## **EUSKARA ETA HEZKUNTZA**

### **I**

### **Hezkuntza mailak**

Europar hizkuntza gutxitu oso gutxi dira unibertsitate mailako irakaskuntzan erabiltzen direnak. Estatuko hizkuntza ez diren gutxiengo hizkuntza edo hizkuntza gutxitu horien kasua izan ohi da honakoa. Honetan ere, euskararena salbuespena da, izan ere, euskara bada goimailako hezkuntzan irakaskuntza-hizkuntza (Cenoz, J. 2012, 44. orr).

## Hezkuntza ereduak

Euskaraz hezkuntza eredu hauek daude: Ikastolen eredu eta D eredu deritzona. Ikastolen eremua Euskal Herri osoari dagokio eta D eredu EAE eta Nafarroako zati bati bakarrik.

Hala ere EAEko lurraldeen arabera egoera ez da berdina (Huguet, 2007):

“The situation is not the same in the three territories: model D predominates in Guipuzcoa, where model A is nearly disappearing; the three models are fairly balanced in Vizcaya, and in Alava model B is increasing, with an important presence of model A and a smaller presence of model D.”

## EUSKARAREN ESTATUSA ETA NORMALIZAZIOA

Orain dela hamar urte baino gehiago, euskararen presentzia inoiz baino hobe zela 2001ean azpimarratzen du hemen Amorrortuk (2001):

“Euskararen aldeko plangintzaren lau hamarkada pasatuta, aldaketa nabariak egon dira euskararen distribuzio funtzionalaren arloan. Euskarak inoiz ez izandako funtzio asko betetzen ditu gaur, batez ere hezkuntza, administrazio publiko eta komunikabide munduan. Euskarak estatus hobe lortu du: “baserri hizkuntza” izatetik gizarte moderno eta bizitza profesionalaren arlo askotako hizkuntza izatera heldu da. Talde sozialei dagokienez, bai herrietako bai hirietako gazte asko euskara egoera gehienetan normaltasunez erabiltzera ohitu dira. Ikasketa asko euskaraz egin daitezke eta euskararen presentzia estatus handiko egoeretan inoizkorik onena da.

Dena den, euskararen erabilera egoera informaletan apurka-apurka gehituz badoa ere igoera oso motela da eta askoren ardura da harreman intimoetan gazteen artean erdarara jotzeko joera.”

Gaur egun, oraindik, euskararen presentzia hitz egitean, euskararen erabileraren eskasiaz hitz egiten da baita euskaldunen eskubideak urratzeari buruz ere. Duela gutxi, 2014ko maiatzean, urteko txostena argitaratu zuen Behatokiak (Hizkuntza Eskubideen Behatokia) eta ondoren Berria egunkariak txosteneko datuen berri eman zuen. Datuek adierazten dutenez, euskarak ez dauka izan behar lukeen presentzia eta ezkutatuta edo Berrian esaten den bezala “zokoratuta” jarraitzen du, eta euskal hiztunen eskubideak ez dira betetzen. Herritarrak batik bat zerbitzu publikoen jarreragatik kexatzen dira nahiz eta aurreko urtean baino %26 kexu gutxiago bildu den.

Zuazok (2001) *Euskalgintza XXI. mendeari buruz* izenez burututako Euskaltzaindiaren nazioarteko XV. Biltzarrean euskarak 4 gaitz dituela esan zuen:

**Gaur egun,  
oraindik,  
euskararen  
presentziaz hitz  
egitean,  
euskararen  
erabileraren  
eskasiaz hitz  
egiten da baita  
euskaldunen  
eskubideak  
urratzeari buruz  
ere.**

**Azpeitian egitea erabaki da ikerketa. Herri hizkera bizi-bizirik dagoen herri euskaldun petoa delako eta bertako gazteen jarrera gaur nolakoa den jakiteko.**

**Azpeitian gehiengo biztanleriak euskaraz egiten du bere egunerokoan. Orduan esan daiteke, Azpeitian euskara (bertako euskalkia) ez dela gutxiengo hizkuntza.**

“Hiztunak erakartzeko ahalmenik ez izana. Hizkuntza sortzeko sena ihartu izana. Guraso eta seme-alaben arteko hizkuntza lotura eten izana. Euskara arrotz eta exotikoa garatu izana.”

Gaixotasun horiei aurre egiteko herri erdaldunak herri euskaldunetara hurbildu behar direla dio Zuazok eta ez alderantziz.

Honengatik guztiagatik, Azpeitian egitea erabaki da ikerketa. Herri hizkera bizi-bizirik dagoen herri euskaldun petoa delako eta bertako gazteen jarrera gaur nolakoa den jakiteko.

## AZPEITIKO TESTUINGURUA

I EUSTATen, 2011ko datu soziolinguistikoek erakusten dutenaren arabera, 2011ko Azpeitiko guztizko biztanleria 14.540koa da. Horietatik 11.723 euskaldunak dira (elebidunak %80,6) eta 1.119 ia euskaldunak (elebidun hartzaileak %7,7). Ama hizkuntza euskara 10.978 pertsonen dute eta ama hizkuntza gaztelania eta euskara 560 pertsonen. Gainontzekoek ama hizkuntza gaztelania dute, edo beste hizkuntzaren bat. Erdaldun elebakarrak 1173 (%8) pertsona dira datuen arabera.

Azpeitiarrek etxean nagusiki erabiltzen duten hizkuntza euskara da 2011ko datu horien arabera. Herritarrak euskararen erabilerarako ezinbestekoak diren ezaugarri nagusien jabe dira: erraztasun handia dute euskaraz egin eta jarduteko eta, oro har, elebidunen dentsitatea etxean handia da.

Azpeitian gehiengo biztanleriak euskaraz egiten du bere egunerokoan. Orduan esan daiteke, Azpeitian euskara (bertako euskalkia) ez dela gutxiengo hizkuntza.

## METODOLOGIA

### I Ikerketa galderak

Bi hizkuntzekiko, euskararekiko eta gaztelaniarekiko, lotura afektiboa eta hizkuntza horien erabilera izango dira aztergai ikerketa honetan. Euskararen barruan bi hizkera hartu dira kontuan, euskara batua eta azpeitiera. Hala nola, hauek dira ikerketa galderak:

#### 1. AZPEITIKO GAZTEEN HERRIKO HIZKUNTZEKIKO LOTURA AFEKTIBOA

- Nolakoa da euskararekiko lotura afektiboa?
- Nolakoa da gaztelaniarekiko lotura afektiboa?

- Nolakoa da azpeitierarekiko lotura afektiboa?
- Nolakoa da euskara batuarekiko lotura afektiboa?

## 2. AZPEITIKO GAZTEEN HERRIKO HIZKUNTZEN ERABILERA

- Nolakoa da gaztelaniaren erabilera?
- Nolakoa da azpeitieraren erabilera?
- Nolakoa da euskara batuaren erabilera?

---

**Guztira 16-18 urte bitarteko 40 ikaslek bete dituzte galdetegiak.**

### Tresnak

5eko eskalan oinarrituriko 80 galderako galdetegi itxi bat sortu da eta galde sorta itxia galdera irekiekin osatu da.

Galdetegi osoa sortu ostean, proba pilotua pasa zizaion eta ondoren zuzenketak eta aldaketak egin ziren.

### Partaideak

Ikerketa hau, zehazki, Urola Ikastolako Azpeitiko eraikinean egin da. 2013-2014 ikasturteko batxilergoko 1.mailako ikasleak hartu dute parte. Guztira 16-18 urte bitarteko 40 ikaslek bete dituzte galdetegiak.

### Analisiak

Galdetegiak analisi kuantitatibo eta kualitatiboen bidez analizatu dira. Batetik, analisi kuantitatiboa Excel programa erabilia egin da: estatistiko deskribatzaileak analizatu dira. Bestetik, galdera irekiak maiztasunen arabera analizatu dira.

### EMAITZAK

#### I Analisi kuantitatiboa

Galdetegietatik lortutako emaitzen batez besteko eta bariantzak interpretatu dira honako atalean.

#### **Azpeitiko gazteen herriko hizkuntzekiko lotura afektiboa**

##### *Euskararekiko lotura afektiboa*

Batetik bostera 4,31ko batez besteko puntuazioarekin, Azpeitiko batxilergoko lehenengo mailako ikasleek euskararekiko lotura afektibo estua dutela erakusten dute. Gainera puntuazio altuena jaso duen blokea izan da hau eta gazteek euskararekiko jarrera positiboa dutela adierazten du honek guztiak.

Honako galderetan lortu da puntuazio altuena eta baxuena:

**Euskararekiko jarrera positiboa izanda, gazteek iritzi desberdina dute euskalduna zerk egiten duenaren inguruan.**

**1. taula: euskara, puntuazio altuena eta baxuena**

Euskalduna izateaz harro nago	4,88
Lagunekin euskaraz hitz egiten dut	4,88
Azpeitian euskaraz jarduteko nahikoa aukera dut	4,85
Euskarak lana aurkitzeko balio du	3,28
Euskararik gabe euskaldun izan naiteke	3,38

Puntuazio altuena lortu duten item horiek ia gorengo emaitza lortzera iritsi dira, hau da 5a. Item horien arabera, gazte hauek euskararekiko atxikimendu handia dute; izan ere, harro daude euskaldunak izateaz eta gainera lagunekin ere euskara darabilte. Euren arabera, herrian euskaraz jarduteko nahikoa aukera dute. Bestalde, puntuazio txikiena lortu duten itemak 3ra tarteko zenbakira (ez ados - ez ez-ados) hurreratzen dira. Tarteko zenbaki horretara hurbiltzeak item horiekiko baieztapenean ziurgabetasuna adieraz dezake. Euskarak lana aurkitzeko balio duela uste dute, baina zalantzak dituzte, ez dute oso garbi ikusten. Gainera euskararik gabe euskalduna izan daitekeela iritzi diote, 3,38ko puntuazioarekin, baina ziurgabetasunera hurbilduz.

Azkeneko item honek, “euskararik gabe euskaldun izan naiteke”, batez besteko 3,38ko puntuazioa lortu du baina bariantzari (1,57) begiratuta esan daiteke euskararekiko lotura afektiboa aztertzeko erabili den I. bloke honetan ez-adostasun edo iritzi desberdin gehien bildu duena dela item hau, edo bestela tarteko zenbakira asko hurbildu dela. Euskararekiko jarrera positiboa izanda, gazteek iritzi desberdina dute euskalduna zerk egiten duenaren inguruan. Kontrastatzeko, ordea, “euskarak egiten nau euskalduna” itemak 4,45eko puntuazioa duela ikusten da, batez bestekoaren gainera egonik alegia.

Hala nola, lortutako batez besteko puntuazioaren (4,31) gainera 15 item daude. Kontuan izanda bloke bakoitzean 20 galdera daudela, 20tik 15 galdera batez bestekoaren gainera egoteak indar handia ematen dio euskararen bloke honi. Item horiek honakoak dira:

**2. taula: euskara, batez bestekoaren gainera**

Euskara garrantzitsua da	4,75
Euskara nire hizkuntza da	4,80
Euskara maite dut	4,75
Euskalduna izateaz harro nago	4,88
Euskarak egiten nau euskalduna	4,45
Beste herri batera joaten naizenean gustatzen zait euskara entzutea	4,75
Ez dut atsegin euskaraz ikastea	4,60
Euskara, hizkuntza kulturaduna iruditzen zait	4,38
Euskaraz bizitzea nahiko nuke	4,75

Lagunekin euskaraz hitz egiten dut	4,88
Euskal Herrian euskaraz egin behar da	4,33
Azpeitian euskaraz jarduteko nahikoa aukera dut	4,85
Errazago moldatzen naiz euskaraz gaztelaniaz baino	4,48

Horiez gain itemik ez dago 3aren azpitik: denak tarteko zenbaki horren gainetik daude.

### *Gaztelaniarekiko lotura afektiboa*

Batetik bestera 2,65eko batez besteko puntuazioarekin Azpeitiko batxilergoko lehenengo mailako ikasleek gaztelaniarekiko lotura afektibo txikia dutela erakusten dute zenbakiak. Gainera puntuazio baxuena jaso duen blokea izan da hau euskara batuaren blokearekin batera. Gazteek gaztelaniarekiko jarrera ahula duela adierazten du honek guztiak.

Honako galderetan lortu da puntuazio altuena eta baxuena:

#### **3. taula: gaztelania, puntuazio altuena eta baxuena**

Gaztelaniaz jakitea garrantzitsua da	4,43
Gaztelaniaz bakarrik egiten dutenek, euskaraz egiten saiatu behar lukete	4,23
Gaztelania nire hizkuntza da	1,58
Gaztelania gure hizkuntza da	1,70
Gaztelania eta euskara, biak, maila bertsuan maite ditut	1,55
Lagunekin gaztelaniaz hitz egiten dut	1,33
Euskal Herrian gaztelaniaz hitz egin behar dela uste dut	1,53

Puntuazio altuena lortu duten galdera horiekin ados agertu dira gazteak. Azpeitiko gazteek gaztelania jakitea garrantzitsua dela uste dute, baina aldi berean gaztelaniaz bakarrik egiten dutenek euskaraz egin behar luketela garbi daukate. Gaztelaniaren ezagutza garrantzizkotzat jotzeak jarreran badu eragin positiboa. Hala ere, gazte hauek gaztelania ez dute euren hizkuntza denik sentitzen, ezta “gure hizkuntza” denik ere. Euskara eta gaztelania inondik inora ez dituzte maila bertsuan maite eta lagunekin ez dute gaztelaniaz egiten. Euskal Herria ez dute gaztelania hizkuntzarekin lotzen, eta ez dute uste Euskal Herrian gaztelaniaz egin behar denik.

Lortutako batez bestekoaren puntuazioaren gainetik eta 3aren gainetik 6 item daude. Honakoak dira item horiek:

#### **4. taula: gaztelania, batez bestekoaren eta tarteko zenbakiaren gainetik**

Gaztelaniaz ondo jakitea ezinbestekoa da	3,98
Gaztelaniaz bakarrik egiten dutenek, euskaraz egiten saiatu behar lukete	4,23

---

***Azpeitiko gazteek gaztelania jakitea garrantzitsua dela uste dute, baina aldi berean gaztelaniaz bakarrik egiten dutenek euskaraz egin behar luketela garbi daukate, bata ez baitu bestea kentzen.***



<b>Euskal Herria ez dute gaztelania hizkuntzarekin lotzen, eta ez dute uste Euskal Herrian gaztelaniaz egin behar denik.</b>	Gaztelaniaz hitz egiten lotsatu egiten naiz	3,30
	Kosta egiten zait gaztelaniaz egitea	3,05
	Gaztelania hotza iruditzen zait	3,35
	Gaztelaniaz jakitea garrantzitsua da	4,43

Lehen aipatu da gaztelaniaz jakitea garrantzitsua iruditzen zaiela gazte hauei, baina ez hori bakarrik, gainera gaztelaniaz ondo jakin behar dela ados daude. Hala ere gaztelaniaz hitz egiten batzuk lotsatu egiten dira, eta zenbaiti kostatu ere egiten zaio. Dena dela, bi galdera edo item horiek 3ra, tarteko zenbakira, hurbiltzen dira eta gainera bariantza handia dute. “Gaztelaniaz hitz egiten lotsatu egiten naiz” itemak 1,81eko bariantza du, eta “kosta egiten zait gaztelaniaz egitea” itemak 2,10eko bariantza. Honek gazteen artean egoera desberdinak eta bizipen desberdinak daudela erakuts dezake. “Gaztelania hotza iruditzen zait” itema ere tarteko zenbakira dezente hurbiltzen da baina bariantza ez da hain nabarmena.

Tarteko zenbaki horretatik behera 14 item aurkitzen dira, eta kontuan izanda 20 galdera daudela blokean, hori asko da.

#### **5. taula: gaztelania, tarteko zenbakitik behera**

Ezezagun batengana zuzentzean gaztelaniaz hitz egiten diot	2,35
Euskal Herrian gaztelaniaz hitz egin behar dela uste dut	1,53
Lagunekin gaztelaniaz hitz egiten dut	1,33
Gaztelaniak Euskal Herrian ez luke horrenbeste indar izan behar	1,98
Ez naiz eroso sentitzen gaztelaniaz hitz egiten	2,83
Gaztelaniaz ikastea atsegin dut	2,23
Gaztelania eta euskara, biak, maila bertsuan maite ditut	1,55
Gaztelaniaz mintzatzen eroso sentitzen naiz	2,70
Gaztelania gure hizkuntza da	1,70
Gaztelania atsegin dut	2,98
Gaztelaniaz hitz egiten ondo sentitzen naiz	2,80
Gaztelania nire hizkuntza da	1,58
Gaztelaniak xarma berezia du	2,25
Gaztelania ez dut atsegin	2,80

“Gaztelania ez dut atsegin” itemarekin ez daude ados baina hau ere tarteko zenbakira gerturatzen da, eta berdina gertatzen da “gaztelania atsegin dut” itemarekin ere. Ez dakite gaztelania atsegin duten ala ez duten atsegin, ezta gaztelaniaz hitz egiten ondo sentitzen diren ere.

### *Azpeitierarekiko lotura afektiboa*

Herriko hizkeraren blokeak 4,08ko batez besteko balioa lortu du. Datu horren arabera gazteek herriko hizkerarekiko lotura afektibo positiboa dutela esan daiteke. Lehen ere aipatu da III. bloke hau izan dela, I. blokeari jarraiki, batez besteko altua lortu duena. Honako itemak izan dira puntuazio altuena eta baxuena atera dutenak:

#### **6. taula: azpeitiera, puntuazio altuena eta baxuena**

Azpeitieraz hitz egiten eroso sentitzen naiz	4,83
Nire ustez, azpeitiera formala da	2,68
Azpeitiera herrian bakarrik da erabilgarria	2,23
Egunerokoa azpeitiera erabilgarria zait	4,80

Gazteak azpeitieraz hitz egiten oso eroso sentitzen dira eta egunerokoan darabilte euren hizkera. Bi item horiek ia gorengo emaitza lortu dute. Azpeitiera ez dela formala diote, baina herritik kanpora ere erabilgarria dela adierazi dute.

Batez bestekoaren gainetik 12 item daude:

#### **7. taula: azpeitiera, batez bestekoaren gainetik**

Azpeitiera garrantzitsua da	4,43
Azpeitiera zatarra dela iruditzen zait	4,65
Irakasleei azpeitieraz hitz egiten diet	4,25
Azpeitiera ederra da	4,58
Azpeitiera beste herri hizkeren mailakoa da	4,23
Azpeitiera nire hizkuntza da	4,75
Herriko hizkerak xarma berezia du	4,65
Azpeitiera gertukoa da	4,75
Egunerokoa azpeitiera erabilgarria zait	4,80
Irakasleei azpeitieraz zuzentzen naiz	4,53
Nire barnean azpeitieraz pentsatzen dut	4,68
Azpeitieraz hitz egiten eroso sentitzen naiz	4,83

Honako item hauek guztiak puntuazio altua lortu dute, eta argi adierazten dute azpeitierarekiko irudikapen oso positiboa dutela gazteek. Azpeitiera oso ederra iruditzen zaie, eta baduela xarma berezia diote. Aldi berean, kontraesan bat ere aurkitu da, non azpeitiera zatarra dela dioten eta jarraian azpeitiera ederra dela esan duten. Gazteek azpeitiera gertuko hizkuntza dela esaten dute eta eroso sentitzen direla azpeitieraz hitz egiten, izan ere euren barnean azpeitieraz pentsatzen dute, eta irakasleei ere halaxe zuzentzen dira eskolan.

**Gazteek azpeitiera gertuko hizkuntza dela esaten dute eta eroso sentitzen direla azpeitieraz hitz egiten, izan ere euren barnean azpeitieraz pentsatzen dute, eta irakasleei ere halaxe zuzentzen dira eskolan.**

Batez bestekoaren (4,08) azpitik eta 3aren gainetik 5 item daude:

**8. taula: azpeitiera, batez bestekoaren azpitik eta tarteko zenbakiaren gainetik**

Azpeitiera denborarekin galtzen joango da	3,80
Azpeitieraz idaztea ederra litzateke	3,90
Ezezagun batengana zuzentzean azpeitieraz hitz egiten diot	3,67
Azpeitiera ulerterraza da	3,95
Azpeitiera ahozkoa bakarrik mugatu behar da	3,23

Taula honetan adierazitako itemak izan dira bloke honetan bariantza altuenetakoa izan dutenak. Bariantzarik handiena, esaterako, “azpeitiera ahozkoa bakarrik mugatu behar da” itemak izan du. Honako itema 3ra asko gerturatzen da eta ziurgabetasuna ala iritzi desberdinen arteko ez-adostasuna adieraz dezake. Orokorrean, zenbakiak esaten dutenera mugatuta, azpeitiera denborarekin galtzen joango denaren irudipena izan dezakete gazteek. Hauek euren hizkeran idaztea ederra zatekeela diote eta azpeitiarra ulerterraza dela. Ezezagun batengana zuzentzen direnean ere azpeitieraz hitz egiten diote.

Tarteko zenbakian eta hortik behera 3 item aurkitzen dira:

**9. taula: azpeitiera, tarteko zenbakitik behera**

Nire ustez, azpeitiera formala	2,68
Azpeitieraz idazten dut	3,00
Azpeitiera herrian bakarrik da erabilgarria	2,23

“Azpeitieraz idazten dut” itemak tarteko puntuazioa ez ez-ados – ez ados lortu du. Gazteek akademikoki euskara batuan idatzi arren teknologia berrien bidez euren hizkeran idazten dute. Proba pilotua egitean, gazte batek item honi buruz zalantza agertu zuen, eta bere kezka hain zuzen ere teknologia berrien bitarteko komunikazio informalarri lotuta zegoen. Whatsappetik, facebooketik, twitterretik eta beste hainbat sare sozialetatik euren hizkeran idazten dutela zioen. Item horrek tarteko puntuazioa lortzea ziur aski izango du bere esangura. Garbiñe Bereziartuaren doktoretza tesian (2014) Azpeitiko gazteek teknologia berrien bitartez darabilten hizkuntza zer nolakoa den ikus daiteke, eta gainera gazte hauek teknologia berrien bidez darabilten hizkuntza, eta egoera formalean eta akademikoan darabiltena diskriminatzeke gai direla ikertu du besteak beste. Gazteek, goiko taulako zenbakiak adierazten dutenez, azpeitiera ez dute hizkuntza formala kontsideratzen, baina herritik at erabilgarria dela esan dute.

### *Euskara batuarekiko lotura afektiboa*

Euskara batuaren blokeak gaztelaniaren blokearen ia batez besteko zenbaki berdina lortu du. IV. bloke honek 2,60ko batez bestekoa eman du. Euskara batuarekiko duten irudikapena ez da euren hizkerarekiko duten irudikapenera gerturatzen. Euskararekiko, orokorrean irudikapen oso positiboa dute, baina azpeitiarrarekiko ere, baina euskara batuak zenbaki baxuak izan ditu. Beheko taulan agertzen dira bloke honetako puntuazio altuena eta baxuena izan dituzten itemak:

#### **10. taula: euskara batua, puntuazio altuena eta baxuena**

Euskara batua jakitea garrantzitsua da	4,23
Euskara batua beharrezkoa da	4,00
Euskara batuan idazten dut	4,00
Eskolan ikaskideekin euskara batuan hitz egiten dut	1,05
Irakasleei euskara batuan zuzentzen naiz	1,48
Nire ustez, euskara batua oso formala da	1,68
Herrikoak ez diren lagunekin euskara batuan hitz egiten dut	1,70
Euskara batua asko erabiltzen dut	1,70

Euskara batuarekiko lotura afektiboa aztertzeko erabili den bloke honetan zenbaki baxua irten den arren, Azpeitiko gazteak euskara batua jakitea garrantzitsua dela kontziente dira eta beharrezkoa dela uste dute. Euskara batuan idazteari dagokionez ere adostasuna agertu dute, eta batuan idazten dutela esan. Bestalde, eskolan ikaskideekin ez dutela batuan hitz egiten diote, ezta irakasleekin ere eta ezta herrikoak ez diren beste lagunekin ere. Euskara batua ez dute oso formaltzat hartzen, baina ez dutela asko erabiltzen erakutsi dute erantzunetan.

Tarteko zenbakitik gora 6 item daude. Horietako hiru oraintxe aipatu diren puntuazio altuena lortu dutenak dira. Hauek dira:

#### **11. taula: euskara batua, tarteko zenbakitik gora**

Euskara batua ez dut ondo menderatzen	3,83
Euskara batuan idazten dut	4,00
Euskara batua jakitea garrantzitsua da	4,23
Euskara batua garrantzitsua da	3,98
Euskara batua beharrezkoa da	4,00
Euskara batuan maila ona dudala kontsideratzen dut	3,35

Datu hauek erakusten dutenez euskara batuaren garrantziaz ohartzen dira Azpeitiko gazteak. Lehen esan bezala, beharrezko eta garrantzizkotzat jotzen dute euskararen honako hizkera bateratua. Galdetegi-tako emaitzen arabera euskara batua ez dutela ondo menderatzen adierazi

***Euskara batuarekiko duten irudikapena ez da euren hizkerarekiko duten irudikapenera gerturatzen.***

***Euskara batua ez dute oso formaltzat hartzen, baina ez dutela asko erabiltzen erakutsi dute erantzunetan.***

**Gazteek euskara batuaren beharra eta garrantzia aitortzen dute, baina aldi berean badirudi mugak ikusten dizkiotela: kontraesan hainbat igarri da.**

dute eta “euskara batuan maila ona dudala kontsideratzen dut” itema 3ra, tarteko zenbakira, hurbiltzen da. Bariantzari begira jarrita, bi item horiek izan dira iritzietan gehien aldendu direnak.

Batez besteko zenbakiaren azpitik, 11 item daude:

**12. taula: euskara batua, batez bestekoaren azpitik**

Nire ustez, euskara batua oso formala da	1,68
Euskara batua irakurtzeko eta idazteko bakarrik erabiltzen dut	2,10
Ezezagun batengana zuzentzean, euskara batuan hitz egiten diot	2,00
Herrikoak ez diren lagunekin euskara batuan hitz egiten dut	1,70
Euskara batua nire hizkuntza da	2,00
Euskara batuan hitz egiten eroso sentitzen naiz	2,40
Euskara batua artifiziala da	2,58
Euskara batua hotza iruditzen zait	2,45
Euskara batua asko erabiltzen dut	1,70
Egunerokoan euskara batua erabilgarria zait	1,88
Esolan ikaskideekin euskara batuan hitz egiten dut	1,05

Euskara batua ez zaie hizkera artifiziala iruditzen, eta ezta hizkera hotza ere. Dena den, euskara batuan hitz egiterakoan ez dute eroso sentitzen direnik adierazten eta ez dutela asko erabiltzen diote, izan ere, egunerokoan ez zaie erabilgarria suertatzen. Hala ere, euskara batua irakurtzeko eta idazteko soilik ez dutela erabiltzen esan dute, baina ez dela euren hizkuntza.

Gazteek euskara batuaren beharra eta garrantzia aitortzen dute, baina aldi berean badirudi mugak ikusten dizkiotela: kontraesan hainbat igarri da. Esaterako euskara batuaren inguruan, iritziaik aldakorrak izan dira: ez dela artifiziala, beharrezkoa dela, ez dutela asko erabiltzen... esan dute askok (baina euskara batuan irakurri eta idatzi dute ondoren, eta hori ere aztertzeke puntu bat litzateke, baina hemen ez da galdetegia nola erantzun duten aztertu). Euskara batuaren inguruko ideia edo irudikapen nahasiak hainbat dira gazteen artean.

Ondoko bi item hauek batez bestekoaren gainetik eta tarteko zenbakiaren azpitik agertu dira:

**13. taula: euskara batua, batez bestekoaren gainetik eta bariantza**

Euskara batua eskolarekin lotzen dut	2,83	1,53
Euskara batuan hitz egitea kosta egiten zait	2,80	1,24

Honako itemei erantzuterakoan gazteen artean ziurgabetasuna izan dela nagusi esan daiteke. Dena den, bariantza (1,53 eta 1,24) item hauetan

beste itemetan baino esanguratsuago edo altuagoa izan da eta baliteke iritzi desberdin hainbat egotea bi galdera hauen baitan. Horregatik, balore absolutuei begiratu zaie eta “euskara batua eskolarekin lotzen dut” itemak %58an erabateko adostasuna lortu du (40tik 23 pertsonak), %8an adostasuna (8 pertsonak), %13an ez ados eta ez ez-ados (5 pertsonak), %8an ez-adostasuna (3 pertsonak) eta %3an (pertsonek 1) erabateko ez-adostasuna. “Euskara batuan hitz egitea kosta egiten zait” itemak, %28an (11 pertsonak) erabateko adostasuna lortu du eta %43an (17 pertsonak) adostasuna, %28 ez ados eta ez ez-ados dago (11 pertsona) eta %3 (pertsonek 1) ez-ados.

## Analisi kualitatiboa

### Maiztasunen taula

Analisi kualitatibo hau, kuantitatiboa bezalaxe 40 pertsonak osatutako laginetik egin da. Hala nola, galdera bakoitzaren inguruan gazteek idatzi dutena, nolabait kuantifikatu eta esandakoa maiztasunen arabera sailkatu da. Horretarako, gazteek hainbat aldiz errepikatu dituzten erantzunak hartu dira kontuan.

Ondorengo taulan, galdetegi irekiko galdera bakoitzeko erantzunen maiztasun totala handienetik txikienera ordenatuta ageri da.

#### 14. taula: erantzunen maiztasuna

GALDERAK	ERANTZUNAK	MAIZTASUNA
		TOTALA
1. Eskaraz eta gaztelaniaz jarduteko orduan, hizkuntza batean bestean baino errazago egiten al duzu?	Euskaraz errazago	31
	Bietan antzera	11
	Gaztelaniaz ez naiz ondo moldatzen, gehiago kostatzen zait, lotsa ematen dit	4
	Gaztelaniaz errazago	3
	Gaztelaniaz hitz egiterakoan lehendabizi pentsatu egin behar dut	1
2. Zertarako erabiltzen duzu hizkuntza bat eta zertarako bestea?	Euskara ia guztirako	34
	Gaztelania erdaldunekin, kanpora joandakoan, euskaraz ez dakitenekin,...	22
	Gurasoekin/ aitona-amonekin gaztelaniaz, baina lagunekin euskaraz	10
	Telebista ikusi eta irakurri bietan	3
	Gaztelania interneten ibiltzeko	2
	Gaztelaniaz lagunekin eta etxean	1

3. Herri-hizkera (azpeitiarra) eta euskara batua, bata eta bestea, noiz erabiltzen dituzu?	la beti herri hizkera	37
	Eskolan, aurkezpenetan, idazlanetan,... Euskara batua.	21
	Euskara batua euskaraz ondo ez dakitenekin edo nire hizkera ulertzea kostatzen zaienekin...	12
	Euskara batua pertsona garrantzitsuren batekin, egoera formaletarako,...	6
	EGA ateratzeko euskara batua	4
<b>BLOKE I</b> Azpeitian euskararen egoera zer-nolakoa da?	Egoera ona da. Jende askok egiten du euskaraz.	38
	Euskaraz jakin arren gaztelaniaz dihardutenak daude, baita gazteen artean ere, eta hori ez zait gustatzen.	17
	Euskaraz egiteko aukera asko dugu.	16
	Euskaraz ez dakitenek ikastea gustatuko litzaidake, euskararen garrantzia azaltzea beharrezkoa da.	10
	Euskararen helduleku nagusiak herri txikiak dira, herri handi eta hirietan euskaraz hitz egiteko ohiturarik ez dago.	6
	Lortu duguna kontserbatu behar da.	6
<b>BLOKE II</b> Azpeitian gaztelaniaren egoera nolakoa da?	Jende gutxi entzuten da gaztelaniaz.	19
	Gero eta jende gehiago entzuten da gaztelaniaz, ez helduak bakarrik gazteak ere bai.	15
	Gaztelaniaz bakarrik egiten dutenak euskara ikastera animatu behar dira; euskara da laguntza behar du eta ez gaztelania.	14
	Gazteak lotsatu egiten dira gaztelaniaz hitz egiten / gaztelania ondo menperatzea ez litzauguke gaizki etorriko.	6
	Gazteek nahiago dute gaztelania.	1
<b>BLOKE III</b> Azpeitian herri-hizkeraren egoera nolakoa da?	Egoera ona da. Aberatsa. Ez nuke ezer aldatuko.	38
	Herri hizkerak ez daitezela galdu, herri bakoitzaren eta euskararen izaera baitira.	7
	Hitanoa galtzen ari da (neskena batik bat), eta ez nuke hori nahi.	4
<b>BLOKE IV</b>	Ez da asko erabiltzen.	30

Zure inguruan euskara batuaren egoera nolakoa da?	Euskara batua eskolan bakarrik darabilt. Aurkezpenak egiteko, idazteko,...	21
	Ez nuke nahi herriko euskalkia euskara batuarengatik ordezkatu.	5
	Beste herri batzuetakoekin darabilt ulertzen ez nautenean.	5
	Egoera ona da.	4
	Euskara batuan hitz egitea ez zait gustatzen	4
	Eskolan aurkezpenak herriko hizkeran egiten utzi beharko ligukete.	3
	Euskaldun berriek darabilte.	3
	Batzuetan arraro begiratzen diegu euskaldun berriei eta hori aldatu egin behar da.	2
<b>HAUSNARKETA</b>	Herri hizkuntza nagusi da Azpeitian.	31
Nola ikusten duzu Azpeitiko hizkuntzen egoera?	Ez nuke ezer aldatuko, jende askok egiten du euskaraz. Oso bizi dago hemen euskara.	21
	Euskaraz dakiena gaztelaniaz entzutea ez zait batere gustatzen, gero eta gehiago dago.	15
	Lehenengo hitza behintzat euskaraz izan dadila (denda eta tabernetan ere euskara gehiago egin dadila).	13
	Zoritarrez gaztelania gero eta gehiago erabiltzen da, ez zait gustatzen.	6

***Gazteak lotsatu egiten dira gaztelaniaz hitz egiten eta gaztelania ondo menperatzea ez litzaiekeela gaizki etorriko esan dute.***

## **Azpeitiko gazteen herriko hizkuntzen erabilera**

Galdetegi irekian hainbat galdera egin da aurreko ataleko maiztasunen taulan ikus daitekeen moduan. Galdera horiekin Azpeitiko gazteen artean herriko hizkuntzen erabilera nolakoa den ezagutu nahi izan da, besteak beste. Hala ere, erabileraren inguruko informazioaz gain, hemen ere, nolako lotura afektiboa duten agertu da hizkuntza horien gain.

### *Nolakoa da gaztelaniaren erabilera?*

Orokorrean gaztelaniaz jende gutxi entzuten dela diote gazteek. Baina, gero eta jende gehiago entzuten omen da gaztelaniaz, ez helduak bakarrik gazteak ere bai.

Gazteak lotsatu egiten dira gaztelaniaz hitz egiten eta gaztelania ondo menperatzea ez litzaiekeela gaizki etorriko esan dute.

Euskaraz dakiena gaztelaniaz entzutea ez zaie batere gustatzen, eta hori egiten duen gero eta jende gehiago dagoela esan dute.



---

**“Zoritxarrez”  
gaztelania gero  
eta gehiago  
erabiltzen dela  
adierazi dute, eta  
egoera hori ez  
dute atsegin.**

“Zoritxarrez” gaztelania gero eta gehiago erabiltzen dela adierazi dute, eta egoera hori ez dute atsegin.

*Nolako da azpeitieraren erabilera?*

Ia beti herri hizkeran hitz egiten dutela esan dute gazteek eta azpeitieraren egoera oso ona dela. Herri hizkuntza nagusi da Azpeitian.

Hitanoa galtzen ari dela esan du hainbat gaztek, batik bat nesken noka.

*Nolako da euskara batuaren erabilera?*

Euskara batua ez dela asko erabiltzen adierazi da galdetegietan. Aurkezpenak egiteko, idazteko, irakurtzeko... erabiltzen dute.

Beste herri batzuetakoekin erabiltzen dute euskara batua elkar ulertzeko arazoak daudenean.

Orokorrean, euskara batuan hitz egitea ez zaie gustatzen .

## **Ondorioak**

1. Ikerketa honetako gaietara bueltatuz, batetik Azpeitiko gazteen herriko hizkuntzekiko lotura afektiboa, eta bestetik Azpeitiko gazteen hizkuntza erabilpena esan daiteke ikasle gazte hauen gehiengo esanguratsuak lotura afektibo handia eta positiboa dutela euskararekiko, eta, batik bat, euren herri hizkerarekiko. Erabilerari dagokionez ere, gehiengoak euskara darabil bere ahotan egunerokoan, bai eskolan eta baita kalean lagun artean ere. Etxean gaztelaniaz egiten duenak ere, lagun artean euskaraz egiten du pertsona batek izan ezik. Herriko hizkera da egunerokoan darabiltena.
2. Herri hizkeren garrantzia azpimarratu dute eta herri txikiak euskararen helduleku nagusi direla adierazi dute. Azpeitian herriko hizkera bizi bizirik dago, baina hitanoa ahultzen ari dela esan du batek baino gehiagok; bereziki, nesken noka.
3. Euskara batua eta gaztelaniarekiko atxikimendu txikia erakutsi dute gazteek galdetegietan. Hala ere, aipatu behar da euskara batuaren eta gaztelaniaren garrantzia aitortzen dutela. Baina, aldi berean, badirudi mugak ikusten dizkiotela euskara batuari, izan ere iritziak aldakorrak izan dira. Batzuek euskara batua inoiz ez dutela erabiltzen esan dute, baina galdetegi irekiak euskara batuan idatzi dituzte, eskolarekin lotzen dute erabat euskara batua, baina kontziente dira komunikabide, internet, edo herrikoak ez diren euskaldun hainbatekin elkar ulertu ahal izateko erabiltzen dutela... Euskara batuaren inguruko ideia, nozio edo irudikapen nahasi hainbat badela gazteen artean esan nezake.

4. Gainera, euskara batuan hitz egitea ez dute atsegin eta eskolan ere herriko hizkuntzan aurkezpenak egiten utzi beharko luketela esan dute batzuek. Euskara batua egunerokoan ez zaiela erabilgarria suertatzen diote eta ez direla eroso sentitzen euskara batuan hitz egiten esan dute. Euskara batuan, orokorrean, euskaldun berriek hitz egiten dutela diote. Euskaldun zaharrek batzuetan euskaldun berriei gaizki begiratzen diete eta hori aldatu egin behar dela adierazi dute.

5. Euskalduna euskarak egiten duela esan dute gazteek eta Euskal Herrian euskaraz egin behar dela.

6. Gaztelaniaren inguruan ere atxikimendu txikia agertu du gehiengo batek, eta egoera desberdin hainbat nabari da gazte desberdinen artean. Gaztelaniarekiko jarrera positiboagoa erakutsi dutenek ere, euskararekiko gertutasun handiagoa erakutsi dute. Euskaraz jakin eta hala ere gaztelaniaz egiten duen jendearen jarrera ez dute ulertzen, eta haiengana erdaraz zuzendu beharra ez dute atsegin. Batzuk gaztelaniaz hitz egiten deseroso sentitzen dira, eta beste batzuk bai gaztelaniaz eta euskaraz, bietan, ondo moldatzen dira, nahiz eta gehienek euskaraz hitz egitea nahiago izan. Gazteen kopuru garrantzitsu batek esan du lotsatu egiten dela eta kostatu egiten zaiola erdaraz hitz egitea.

7. Herrian euskara nagusi den arren, gaztelania gero eta gehiago entzuten dela iruditzen zaie, ez helduen ahotan soilik, baita gazteen artean ere.

## Hezkuntzarekiko inplikazioak

Interesgarria eta garrantzitsua litzateke eskolan euskararen, lekuko lekuko hizkera eta euskara batuaren nozio hauek guztiak lantzea. Batek baino gehiagok ez du euskara batua gustuko, ez dute aldaera horrekiko jarrera baikorrik adierazten. Gaztelaniarekiko ere atxikimendu oso txikia dute gazteek, naiz eta garrantzitsua dela esaten duten. Horregatik, egoera hauek guztiak landu egin beharko litezke klasean: euskara batuarekiko beldur, kexa, gaztelaniarekiko zailtasunak... Horiek gainditzeak onurak ekarriko dizkie hainbat alorretan, baina batez ere, euskaldun nortasun eta euskal kulturaren irudikapenen baitan. ●

## BIBLIOGRAFIA

### Erreferentzia bibliografikoak

Amorrortu, E. (2001). "Elkartasuna eta estatusa hizkuntz jarreretan: Euskararen erabilera aurreikusten". *Bat: Soziolinguistika Aldizkaria*, 40: 75-87 <http://www.soziolinguistika.org/es/node/894>

---

***Euskaldun zaharrek batzuetan euskaldun berriei gaizki begiratzen diete eta hori aldatu egin behar dela adierazi dute.***

***Gaztelaniaren inguruan ere atxikimendu txikia agertu du gehiengo batek, eta egoera desberdin hainbat nabari da gazte desberdinen artean.***

***Herrian euskara nagusi den arren, gaztelania gero eta gehiago entzuten dela iruditzen zaie, ez helduen ahotan soilik, baita gazteen artean ere.***

- Bereziartua, G. (2014). *Ingurune Euskalduneko Gazteak eta Hizkuntza Idatzia, Eskolan eta Eskolatik Kanpo*. EHUko Doktoretza tesia. Argitaratu gabe.
- Cenoz, J. (2012). "Bilingual Educational Policy In Higher Education In the Basque Country". *Language, Culture and Curriculum*, 25: 41-55.
- Eusko Jaurlaritza (2013). *V. Inkesta Soziolinguistikoa. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia*. Kontsultatua 2014ko maiatzaren 16an helbide honetan [http://www.euskara.euskadi.net/contenidos/informacion/argitalpenak/eu\\_6092/adjuntos/V.%20Inkesta.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/V.%20Inkesta.pdf)
- Eustat, *Euskararen erabilera* (2011). Kontsultatua 2014ko maiatzaren 24ean helbide honetan [http://eu.eustat.es/estadisticas/tema\\_460/opt\\_0/ti\\_Euskararen\\_erabilera/temas.html#axzz3CGAZKAoy](http://eu.eustat.es/estadisticas/tema_460/opt_0/ti_Euskararen_erabilera/temas.html#axzz3CGAZKAoy)
- Hizkuntz Eskubideen Behatokia (2014). *Hizkuntza Eskubideen Egoera Euskal herrian 2013. Urteko txostena*. Kontsultatua 2014ko ekainaren 2an helbide honetan [http://issuu.com/hizbeha/docs/hizkuntza\\_eskubideen\\_egoera\\_2013/1?e=8465707/7758218](http://issuu.com/hizbeha/docs/hizkuntza_eskubideen_egoera_2013/1?e=8465707/7758218)
- Huguet, Á. (2007). Minority languages and curriculum. The case of Spain. *Language Culture & Curriculum*, 20 (1), 70-86.
- Larrañaga, N. (1995). *Euskalerriko Gaztetxoek Euskararekiko Dituzten Jarrerak eta Beren Eragina Euskara Ikasi eta Erabiltzen*. Doktoretza Tesia. Deustoko Unibertsitatea [http://www.euskara.euskadi.net/app-cont/tesisDoctoral/PDFak/Nekane\\_Larranaga\\_TESI.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/app-cont/tesisDoctoral/PDFak/Nekane_Larranaga_TESI.pdf)
- Moseley, C. (ed.) 2010. *Atlas of the World's Languages in Danger*, 3rd edn. Paris, UNESCO Publishing. Kontsultatua 2014ko martxoaren 25ean helbide honetan <http://www.unesco.org/new/en/culture/themes/endangered-languages/atlas-of-languages-in-danger/>
- Zuazo, K. (2001). "Ohar Zenbait Euskara Normaltze Aldera". Euskaltzaindiaren XV. Biltzarrean irakurria egileak. *Bat: Soziolinguistika Aldizkaria* 40. Kontsultatua 2014ko apirilaren 7an helbide honetan <http://www.soziolinguistika.org/fr/node/893>

### **Kontsultatu diren web orriak**

- Vitoria, O. (2014-05-08). Euskararen ispilu gordinena. *Berria*  
[http://paperekoa.berria.info/harian/2014-05-08/006/001/euskararen\\_ispilu\\_gordinena.htm](http://paperekoa.berria.info/harian/2014-05-08/006/001/euskararen_ispilu_gordinena.htm)
- Ethnologue: <https://www.ethnologue.com/about/language-status>
- Sareko Euskal Gramatika: <http://www.ehu.es/seg/gizt/1/5>